



NOREN BURUAN ERORIKO DA TXAPELA?

Bengoetxea eta Barriola pilotariekin izan da HITZA final handiaren bezperan; leitzarrek ere euren iritzia eman dute **I-IV**

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2008-06-13**

VIURTEA 1.459.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Ibarretxe: «Gure herria Europan eta munduan kokatzeko balio du AHTk»

TOLOSA Juan Jose Ibarretxe lehendakariak 'Trenbidea, es la via' erakusketa inauguratu zuen atzo Aranburun

PROTESTAK Politikariak inaugurazioan zeuden bitartean protestak izan ziren kanpoaldean, elkarlanak deituta 4



Markel Olano, Juan Jose Ibarretxe eta Jokin Bildarratz erakusketaren inaugurazioan. I. TERRADILLOS

Uholdeak direla eta, Zaldi Eguna bertan behera utzi dute

LEITZA Bihar egin behar zuten ospakizuna; pilotarien omenezko ekitaldiei, ordea, eutsi egin diete atzo iluntzean eginiko bilera baten ostean 7

Heldu eta hurrei zuzenduriko antzezlanak asteburuan

VILLABONA Gaur 'Gezurra gezurraren gainean'; bihar 'Zuk-zuk jaunaren alfabetoa' 6

Arimaz Kamera Orkestraren kontzertua izango da gaur Leidor aretoan

TOLOSA Irungo Musika Eskolako Soka Orkestrarekin batera ariko da 3



**IBARRAKO
UDALA**

**Ibarrako gazte festetan
alaitasuna eta
errespetua nagusi!**



Tel.: 943 67 11 38 • ibarra@udal.gipuzkoa.net

Z **Zurea da hitza**

Atal honetan zuen keaxak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldeko hitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldeko hitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Mila esker!

Bedaioiko Artubi elkartereko zuzendaritza batzordearen izenean mila esker denoi.

Lehengorik gendean mendi marxtan eta bizikleta ibilaldia antolatuta genuen guztien izenean millesker.

Millesker laguntza eman zenuen komertzio eta empresa orori: Aralar kirolak, Shanti kirolak, Begiristain bizikletak, Arsuaga, Bodegon benta alde, Comercial Itxasi, Ilorreta Artzaigazta, Larrañeta Berri Artzaigazta, Txiki Jai Makailoak, Artubi Iturgintza, Mekalan, Eiten Aroztegia, Ogi Berri, Iñaki Balerdi Harategia, Iñaki sukaldeak, Kopi Bat, Insalus, Zabala Kafek, Graficas Ibarra, Tolosako gurutzegorria, Tolosako Udala eta Tolosaldea Hitza.

Millesker asteburu guztian borondate onenakin lanean aritu zaretenoi, eta nola ez, eguraldiari muzin egin ez parte hartu zenuen guztioi. Zuei esker eta zuegatik, hurrengo mendi marxta antolatzen ari gara.

Milla esker.
Bedaioiko Artubi elkarterea.

Guztiz ados: gezurrekin inora ez!

Guztiz ados nago Ibai-Ondoko arduradunak nere gutunari erantzuteko pasa den ostiralean kaleratutako testuaren izenburuarekin: «gezurrekin inora ez!».

Horrexegatik, eta nere kotxeari bere garbiketako instalazioek egindako kalteak dakogenez, ona hemen erabili dituen falsukeriak agerira ateratzen dituzten frogak:

1. «Orraziak berriak ziren». Kalteen egunean bertan eta Ibai-Ondoko arduradunaren arurrean orraziei ateratako argazkiak dituzte eskuartean. Hauek argi eta garbi uzten dute beraien antzinasuna eta egoera txarra.

2. «Giltza batek egindako marrik ziruditen». Marra horiek ikusi dituzten guztiek, konpoketaren kargu dagoen karrzeroa eta peritoxa barne, zalantzarik ez dute marren sakonera, beraien arteko desberdintasuna eta distribuzioarekin ezin direla giltza baten ondorio izan.

3. «Egun batzutura, orrazi hura falta izan zen baten batek lapurtuta. Zeinek? Zergatik?». Erantzun bila dibilenak, argi izan dezala ez

naizela ni kalteen frogia nagusia desagertzeko interesik duena.

Zoritxarrez ez dut komunikabideetan aurkituko konponbiderik nere kotxearentzat, baina beste inorrigertatu ez zaitzaion, hauexek nere azken hitzak ulertu nahi dituenarentzat.

Maria Larraza

Gora Tolosako herri jolas taldea

Artista koadrila bat bildu eta Xi-bak urtero antolatzen duen Euskal Herrien arteko herri jolas jaialdian parte hartu genuen pasa den igandean Usurbilen. Ez ginen lehenak geratu, ezta azkenak ere baina garrantzitsuena, primeran pasa genuela. Ez dadi- la azkenaldia izan, baina hurrengo- gorako gehixeago entrenatuta.

Tolosako herri jolas taldea

Omar Faruk-en kontzertua oso ona

Pasa den asteen Omar Faruk turkiararen kontzertuaz gozatzeko aukera izan zen Tolosako Leidor aretoan. Aretoa ia guztiz bete zen, eta kontzertua oso ona izan zen, bi ordu irau zuen arte, beraz, musikariak portatu ziren. Oso ondo dago horrelako artistak ekartzea herrira. Zerbait komentatzekoan, orduarena esango nuke, ea hurrengo baterako aldatzea duten, izan ere, 20:30ean ez zait oso ordu egokia iruditzen, eta askok komentatu dute hori. Milla esker!

Mikel

Atzera pausoa eman dezazuen...

Ez dakit norengana jo. Arartekoaren gaitza agian, ez dakit; egia esan,

babesik gabe sentitzen naiz; eta ni hala banago, nola babestu nire ardurapean daudenak?

Izan ere, behin eta berriz irakurri dut gure Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak egunkari honetara bidalitako azkeneko gutuna (joan den asteazkenean argitaratu) eta behin eta berriz sentitu dut babes eza hori.

Zera eskatuko nioke babesa emango lidaken horri: Udaleko lau pertsona horiek barkamena eska diezadaten, aurrekoetan egindako koengatik ez bada ere, azkeneko gutun horretan esan dituztenekoengatik. Gutun osoa aztertu behar- koa da, gure pankarten okerreko itzulpenetik hasita, baina ez nuke nire helburutik gehiegi urrunze- rik nahi. Gobernu Batzorde horre- tako kideei zera esan nahi dizu- et: zuten kontrako iritzia dugun guz- tiok zaku berean sartu gaituzte- gun gaizto horretan. Gutako as- kok pankarta bat jarri dugu etxeko balkoian, non irakurtzen den: *Herriko hezkuntz proiektuaren alde* eta zuek gaizki irakurri, gaizki itzuli eta gaizki kopiatu duzue: *Eredu bakar baten alde* diotela esanez. Pankarta hori dugun guztio- k ere zaku berean sartu gaituzte. Orain zer? Nola konponduko du- zue halako hanka sartzea eta hor- retan oinarrিতa idatzi duzuen gutun gaiztoaren ondorioak? Ez al zarete kontratuzen egiten duzuen kalteaz? Zuek uste duzue herri- bateko ordezkari deitzen den edo- nork halako jokabide izan dezake- ela? Niri izugarritzko mina eman didazue; ez duzue inolako eskubi- derik niri zuen ahotik ateratako zabor guztia botatzeko. Nola gera- tu lasai horrelakoak esan eta gero? Eta zuek udaleko ordezkariak za- rete? Zein eskutan gauden! Beldu- rra niri zuek ematen didazue!

Jauntxoaren garaira bueltatu garel- la dirudi, jaun ta jabe ari zarete, herri- rri bizkara emanda erabaki gar- rantzitsuak hartuz! Karl Marx ai- patzen baduzue, ez ezazue egin nahi duzueneko soilik; hau da, batetik arrazioa ematen badiozue «K.M. ongi aurrekusi zuen gizar- tea kikilduta, apalduta dago eta zenbait gauzek lokartu egiten dute», nolatan ez zaizue ondo iru- ditzen lo horretatik esnateza, kikil- duta egoteari uztea?

Hain zuzen ere, horretan ari gara! Eta gu gara iritzi bakar nahigunok? Irakur ezazue ondo zuen hirugarren paragrafoa. Nire ustez, zuei hitzez-hitz dakogizue hor esaten dena; herriko haur es- kolaren inguruko arazoari dago- kienez, behintzat, paragrafo hor- retan diozuen bezala jokatu du- zuelaste dut!

Zuen gutunean azaltzen diren hitz batzuk gezurrak izateaz gain, itsusirik ere badira, baina jasan dai- tetzke. Horien artean, aipatu dize- den paragrafoak. Aldiz, botatzen dituzuen beste batzuk erabat onartezinak dira, gezurra izateaz gain; horien artean nahi dut zuek atzera pauso bat ematea, edo nor- taz ari zaren zehaztea, niri eman didazuen mina inolaz ere ez baitu merezi; hitz horiek, denetan oke- hrenak, udaleko ordezkarien aho- tan jasaezinek direnak hauexek dira: «beldurraren bidez eginko alienazioak egiten ditu indartsu», «haiengandik ezberdina den oro salatzen», «goiko arraza direla sin- nistarazten». Haiak dira diktadura erradikalenetik edaten dutenak, beldurra erabiliz boterea berega- natzako eta denak berdindu izan dai- tezen helburuarekin heziz.

Ni zuen iritzi eta jokabidean era- bat kontra nago, bai, eta eskubide guztia dut hala azaltzeko. Baina lotsa ematen dit gogorazi behar izate- az direla sekulan galdu behar pertso- nen artean ari garenean. Agian poli- tika munduan zaudetenok oinar- ritzko ideia hau ahaztuta duzue, baina gutako gehienok ez gaude ohituta ezagutzen ez gaituen inork gutaz, inpunitatez, halako ge- zur maltzurak idazten egunkarietan.

Beraz, beste gutun batean atzera pauso hori eman dezazuen es- katzen dizuet, nahiz eta agian Arartekoari eskatu beharko nioke- en.

Pilota kartutxoak**» Kale kantoitok**

Joxemi Saizar

Garraio grebak izango du e- rugin zuzena aurtengo eskupi- lota finalaren ospakizunetan, lei- tzarrek ezingo baitiote igandean txapeladunari eta txapeladunorde- ari (Abel eta Oinatz edota Oinatz eta Abel) behar bezalako harrera egin herrian. Afari herriko jendetsua bertan behera utzi behar izan dute, hornidura ezin dutela- ko ziurtatu. Arrazo beragatik ezingo genuke Ikastolaren Egu- na ospatu, baina paella goxoa ez da faltako Usabalen, guraso pres- tu eta langile batzuei esker. Gus- tura gonbidatuko nituzke bi pilo- tariak bazkaltzera, baina ordu horretan beste gauza batzuk ibi- loko dituzte buruan seguraski. Baz- kalondoren, pantaila erraldoian jarraitu dugu leitzarren arteko fi- nala eta emozioa ez da faltako. Ez dut uste bi pilotariak etxera joan- go direnik a faltzera. Ez eta bere jarraitzaileak ere.

Solstizioa inguratzen dela eta (nahiz eta eguraldian ez gehiegi antzeman), sanjoanek ere ate joka ditugu. Su festan, San Joan eguneko (bezperan bestelakoa izango baita eta gauean su artifi- zialak ere izango dira), fogueoko kartutxoak hasiko dira erabili- tzeko eta denak berdindu izan dai- tezen helburuarekin heziz.

Sanjoanetarako ez, baina Pello Odriozola tolosarrak sanfermi- netarako atera behar zuen kar- tzelatik, 20 urte beteta, baina bes- te hamar urtez luzatu diote zigo- rra, berriz ere auzitegien inpartzialitateaz auzitan jarri, le- geak eta erabakiak komenientzi eta gogo politikoen arabera mol- datuz eta aldatuz.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoaín · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja
Tolosa (Bellatokia)

Jojo Bordagaraien doinuak Frontonen

Musika » Bordagarai taldeko kideekin 'Bahaki' disko berria aurkeztuko du Iparraldeko musikariak, bihar, 23:30etik aurrera.



Jojo Bordagarai. HITZA

ERREDAKZIOA

Jojo Bordagarai Iparraldeko musikariaren kontzertua izango da bihar, 23:30ean Fronton Kafetegian.

1973ean musikari ekin zionetik, herriko kantugintzaren ikuspegi garaikidea lantzen, tradizioa eta identitateak ikusmira gaurkotu batez aurkezten ahalegindu izan da.

Bahaki izeneko disko berria aurkeztuko du biharko kontzertuan. Mundu ugariak eta jatorri ezberdineko zaporeak nahastuz, izaera berezko ibilbide bat lortzen du, bizitza bezala, une lasaia eta malenkoniotsuak, momentu intentsoen orekatzen direlarik.

Baina ez da bakarka ariko, Bordagarai izenpean aurkezten den talde berriarekin baizik. Jojo Bordagarai (kantua), Philippe de Ezcurra (bandoneoa, akordeoia, korruak), Marc Tambourindeguy (pianoa, korruak), Eric Ruiz (kitarrak, tres), Erik Otxandaburu (kontrapala) eta Vincent Thomasek (atabala) osatzen dute taldea. Gusto handiarekin apainduriko doinuak, bihotz barrenetik abesturiko kantak eta izpiritu baikorraren landutako emozioak dira.

Kultur tailerrekoen dantza emanaldia bihar, Leidorren

Dantza » Katixa Perea izango da emanaldiaren zuzendaria; baleta eta dantza garaikideko 150 ikasle ariko dira.

Parte-hartzaileei dagokionez, kultur tailerretako baleta eta dantza garaikideko 150 ikasle taula gainean ikusteko aukera izango da.



Dantza tailerrekoen saio bat. I.T.

ERREDAKZIOA

Kultur tailerrekoen dantza jaialdia izango da bihar, 18:00etan, Leidor aretoan. Ekitaldi hau San Joan jaien baitan kokatzen da.

Manex Urruzolak aurkezturiko saioan, Ana Irazusta (Dantza Garaikidea), Katixa Perea (Baleta, Puntak) eta Itziar Urruzola (Baleta, Puntak) irakasleen ikasleak ariko dira eta Katixa Perea izango da emanaldiaren zuzendaria.

Arimaz Kamera Orkestraren kontzertua gaur, Leidorren

Musika » Irungo Musika Eskolako Soka Orkestrarekin batera ariko da; emanaldia 20:30ean hasiko da.



Arimaz Orkestrakoak Leidorren, Santa Zeziliako kontzertuan. A. OTEZABAL

ERREDAKZIOA

Tolosako Arimaz Kamera Orkestraren eta Irungo Musika Eskolako Soka Orkestraren kontzertua izango da gaur, 20:30ean Leidor aretoan, Eduardo Mocoeroa Udala Musika Eskolak, Arimaz Kamera Orkestrak eta Tolosako Udalak antolatuta. Sarrerak Leidorreko leihatilan (zine ordutegian eta kontzertuaren aurretik) eskura daitezke.

Ondorengoa izango da Arimaz Kamera Orkestraren egitaraua: Jean-Philippe Rameauren *Dance Suite* (Danse du Grand Calumet de la Paix, 2 minueto eta 2 tambourin) eta Alessandro Marcelloren *Oboe-*

rako kontzertua (Andante e spiccato, Adagio eta Presto). Iker Nagusia ariko da oboean eta zuzendaria Kepa Martinez de Albeniz da.

Irungo Musika Eskolako Soka Orkestrak, berriz, ondorengoa eskainiko du: *Over The Rainbow*, *Heart and Soul*, *Let's Dance Again*,

German Dance, *Sword Dance*, *Russian Dance*, *Ballet Pizzicato* eta *Le-yendas de Pasion*. Julio Bravo Maldonadoren zuzendaritzapean ariko dira. Bi taldeen artean, *Eleanor Rigby* (The Beatles) eta *Piratas del Caribe* (Klaus Badlet) joko dituzte, Maldonadok zuzenduta.

**ALDERDI ONENA
ATERAKO DUGU
TENEMOS PARTIDO**

**BEC BIZKAIA ARENA
EKAINAK 14 JUNIO 18.00H**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

'Trenbidea, es la via' erakusketa inauguratu du Juan Jose Ibarretxek

Gizartea » Uztailaren 3ra arte izango da ikusgai Aranburu jauregian; Euskal Yari buruzko informazioa ematen du, besteak beste.



Juan Jose Ibarretxe, atzo, erakusketaren inaugurazioan. i.t.

INIGO TERRADILLOS

Tolosako Aranburu jauregian egin du lehendabiziko geldialdia *Trenbidea, es la via* erakusketak, «egun-go euskal trenbidearen eta, batez ere, etorkizunekoaren datu nagusien berri emateko». Atzo izan zen inaugurazio-ekitaldia eta bertan izan ziren Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakaria, Nuria Lopez de Guereñu Garraio eta Herri Lan sailburua, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Eudeleko lehendakaria, Markel Olanogipuzkoako Diputatu Nagusia, Rafaela Romero Batzar Nagusietako presidentea, Mikel Cabieces Estatuko Gobernuak EAEn duen Ordezkarria, Joseba Azkarraga Justizia sailburua, Esther Larrañaga Ingurumen sailburua, Eusko Legebiltzarreko hainbat eledun eta EAEko gizarte, enpresa eta ekonomia eragileen ordezkarri talde zabala.

«Gardentasunaren eta informazioaren alde»

Jokin Bildarratzek hartu zuen hitza eta «harro» zegoela esan zuen erakusketa Tolosan hasi delako. Erakusketaren arrazoia ere azaldu zuen: «Gardentasunaren eta informazio zuzenaren aldeko apustua egiten dugulako; AHTk Europarekiko eta munduarekiko lotura esan nahi du, horregatik ez ditut haren kontra, hau da, sistemaz proiektuen kontra, daudenak ulertzen». Eudeleko lehendakariak «udaletxe gehienak proiektuarekin» daudela esan zuen, eta beraz, «guztiok batera aurrera aterako dugu proiektua, beharrezkoa delako, eta inoiz baino azkarrago hobe». Halaber, tolosar guztiak gonbidatu zituen erakusketara.

Bestalde, Juan Jose Ibarretxek adierazi zuenez, «garapena ez da trenari bonbak jartzea, eta horiegi-ten dutenek garapena ukatzen die-

te euskaldunei». Halaber, ezinezkoa dela giza garapena «garraioaren aldeko apusturik egin gabe» esan zuen, «horregatik ezinbestekoa da Abiadura Handiko Trena erabiltzea etorkizuna eraikitzeko; gainera, zer hoberik trena baino, soziala, eta solidarioa baita, eta gure herria Europan eta munduan kokatzeko balioko du».

Bere aldetik, Lopez de Guereñuk Gipuzkoan hasiak diren obrek «pozik baina apal» daudela, eta lurjabeekin eta udalekin elkarlanean ari direla azaldu zuen, «irtene bide egokiena bilatzeko».

Lau tubate nagusitan banatuta

Uztailaren 3ra arte izango da ikusgai erakusketa, lau atal nagusitan banatuta: lehenengoan, EAEn garraioak bizi duen egoerari buruzko ikuspegi orokor bat eskaintzen da: errepideak duen gehiegizko pisua eta horrek eragiten dituen gizarite, ekonomia eta ingurumen arloko arazoak. Ondoren, arazo horien aurrean trenbidea «benetako alternatiba» dela erakusten da, «garraio bide eraginkorra eta iraunkorra baita». Atal honetan, orain bertan egiten ari diren eta datozen urteetan egitekoak diren inbertsioen berri ematen da, bai EA-Eko Administrazioaren aldirietako sarekoena, Eusko Tren, bai tranbia eta metrokoena.

Bigarren atalean, merkantzien garraioaren arazo bereziak landu

dituzte, eta trenak arlo horretan daukan potentzialitatea. Hirugarren atalean euskal trenbide-sare berria edo Euskal Ya da gai nagusia. Horma-irudiek proiektuaren informazio orokorra eskaintzen dute, eta trazatu osoa erakutsiko duen hegaldi birtual bat ere ikusi ahal da, tarte jakin batzuen xehetasunak ere erakutsiko dituen. Tolosa zeharkatzen duen tarteari dagokionean, ortoargazki bat oinarri hartuta berreraiki den irudia ikusi ahal izango dute erakusketara etortzen direnek, eta «Eusko

Jaurlaritzak tarte horretarako proposatu dituen hobekuntzak».

Laugarrenean, mundu osoko abiadura handiko tren nagusien berri ematen da, batez ere, Europakoena. Atal honetan bi maketa handi daude: bata Euskal Yaren trazadura osoa erakusten duena, eta bestea, Espainiako Administrazio Orokorrak eta Eusko Jaurlaritzak 2006ko apirilaren sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Jaurlaritzak egingo duen Bergara-Irun zatiaren profil geologikoa.

«Euskal Yaren proiektua herritarrei azaltzeko»

Erakusketa ibiltari hau Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailak «Euskal Yaren proiektua euskal herritarrei azaldu eta zabaltzeko» hartutako konpromisoaren ondorioa izan da. Horretarako, ikus-entzunezko materiala eta informazio-panelak baliatuz atondu dute, «informazio zehatzarekin, hautatutako gaiak erraz ulertzeko moduan azaltzeko». Hala, bisitariak aukera izango du Euskal Yari buruzko informazio-kanalean sartzeko. Kanala 2006an sortu zen, eta Euskal Trenbide-sare Berriaren proiektuari buruzko xehetasun guzti-guztiak jasotzen ditu.



60 lagun inguru AHTren aurka

GIZARTEA » Erakusketaren inaugurazioko ordu berean Tolosaldeko AHT Gelditu! elkarlanak elkarretaratzera deitu zuen *Amalorra benetan defendatzeko iruzurrik ez, AHTrik ez! Proiektu txikitailerik ez!* lelopean. 60 lagun elkartu ziren bertan eta ekitaldiak iraun zuen bitartean AHTren aurkako aldarriak egin zituzten. Ertzaintzak jarritako «segurtasun hesiaren» atzean izan ziren protesta horiek. i.t.

Graffiti erakusketa eta Skate Txapelketa bihar egun osoan

Kultura » Trianguloan graffitilariak ariko dira, eta Lopez Mendizabalen, berriz, skatean lehiatuko dira.

ERREDAKZIOA

V. Graffiti eta Skate Lehiaketa izango da bihar, Trianguloan eta Lopez Mendizabalen. Udaleko Gazteria Sailetik sustapen arloko emandako urrats eta «errika garrantzitsuenen artean», gazte elkartuek proposaturiko ekintzak aurrera eraman ahal izateko baliabide ezberdinak eskaintzea dagoela azaltzen dute. Horren ondorio da Graffiti-skate lehiaketa, 785 p. Crù gazte taldeak proposaturiko ekintza. Aurtengoa bosgarren urtea da, eta Trianguloan 15:00etatik aurrera goi mailako graffitilarien artean, «neska eta mutilen parte hartzea parekatzeko, graffitilari emakumeen lanak ere izango ditugulugai».

Graffitiarekin batera Lopez Mendizabal kalean, 17:00etan, skate lehiaketa ere egongo da. Lehiaketa 3 mailatan banatuko da, batetik, haurren lehiaketa, emakumezkoen lehiaketa bestetik eta azkenik gizezkoen lehiaketa. Bertan parte hartzeko izena aldezturritik edota egunean bertan eman daiteke Nimbin Shopen.

» EGITARAUA

Trianguloan

- **10:30.** Harrera graffitigileei, material banaketa eta panel banaketa.
- **11:00.** Erakusketa hasiera.
- **13:00.** Atsedena.
- **15:00.** Graffiti erakusketaren jarraipena.
- **17:00.** *A duras penas* Rap-reggae kontzertua.
- **17:50.** Kontzertuaren amaiera.

Lopez Mendizabalen

- **17:00.** Skate lehiaketa hasiera.
- **19:00.** Sari banaketa eta amaiera.
- **20:00.** Festa amaiera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Gaur eta bihar finalerdiak



Pilota » Gaur Adunan eta Albizturren eskualdeko hainbat pilotari ariko dira alebinetan eta infantiletan. Bihar, Berastegin txikianak.

(Zazpi-Iturrri) ariko dira lehendabiziko. Gero, Agirre-Bernabe eta Zelaia-Labaka (Aurrera-Saiatz) bikoteen txanda izango da.

Bihar 11:00etan eta 16:00etan txikianak ariko dira Berastegin.

ERREDAKZIOA

Gutxinaka iristen ari dira V. HITZA Pilota Txapelketako finalak, Aurretik jokatu beharreko hainbat finalerdi gaur eta bihar jokatu dira hiru herritan. Albizturren 19:00etan alebinen mailakoak izango dira. Behar Zanako Labaka-Erasun eta Espelusin-Azpiroz ariko dira, eta ondoren, Errandonea-Urdanpilleta (Aurrera-Saiatz) eta Larrea-Iribarren izango dira aurrez aurre.

Adunan ibiliko diren infantilak 19:00etan hasiko dira ere, gaur, eta Sarasti-Imaz eta Urdangarin-Jaka

Udaberriko final batzuk ere bai

Alegiako pilotalekuan bihar Udaberri Txapelketako finalak jokatuko dituzte, 18:00etatik aurrera, eskolako ikasleen jaialdiaren ondoren. Lehen finala infantil mailan binakakoa izango da. Bertan Alegiako taldeak, Intxurrek, Aurrera-Saiatzkoen aurka lehiatu beharko du. Ondoren banaka, Intxurreko Iñaki Artola izango da, Aurrera-Saiatzko pelotari bat aurkari izanik.

Gipuzkoako finaletako binakako beste bi partidekin osatuko da jaialdia. Alebin mailan Lizardi-Igeldo eta Behar-Zanaren artekoa izango da.

Ikaztegiako eta Alegiako ikastetxeetako ikasturte bukaerako jaia

N. URBIZU

Haurren aurtengo lana ikastetxetan bukatzen ari da, eta hainbat herritan ikasleen garai honi festa giroa eman nahi izan diete. Bihar, besteak beste, Ikaztegiak eta Alegiak egingo dute jaia.

Ikaztegiako biharko eguna Guraso Elkarteak antolatuta du eta 11:00etan hasiko da, pilota partidekin. Ondoren, futbola izango da. Plazan kirolatik dantzara pasako dira, herriko dantzarien saioarekin. 13:30ean umeen bazkaria izango da, eta 14:30ean guraso eta helduena. Bitarte honetan, haurrek begiraleak izango dituzte.

15:30etik 18:30era bitarte, puzgarriak, ludoteka eta malabareak izango dira haurrentzat. Dena plazan egiteko asmoa dute, baina eguraldi txarra egingez gero, frontoian egingo dute.

Alegian arratsaldeak

Alegiako San Juan eskolak eta guraso elkarteak antolatuta, 16:00etan frontoian ikasgela bakoitzak bere saioa eskainiko du, 2 urtetatik 6. mailara artekoen eskutik. Bukatu ondoren, umeentzako merienda prestatu du guraso elkarteak frontoian. Eguraldi hobea egingez gero eskolako patioan egingo dute.

18:00etan, joko malabareen tailerra izango da: saio bat eskainiko dute aurretik eta ondoren, ikasleek praktikatzeko eta hauekin aritzeko aukera izango dute.

Iluntzean afari merienda antolatuta dute plazan eta norberak bere janaria eraman beharko du.

Bestalde, gaur, lau urte eta 6. maila bitarteko ikasleek bihar Alegian egingo duten saioa Altzoko eskolan egingo dute, eta asteartean Ikaztegiakoan. Emanaldi hauek 10:30a inguruan izango dira.

Amezketan batzordeen bilerak, datorren astean

ERREDAKZIOA

Amezketako hirigintza-obretako batzordea eta sortu berri duten kontuen batzorde berezia astelehenean dira elkartzeokoak balioanitzeko gelan, 20:00etan. Kontuen batzorde berezian ia zoko kontu orokorrak hartuko dituzte kontuan. Ondoren, kreditu aldaketa espedienteak eta Kultur Etxeko gastuaren urteanitzeko izaera onartzea egingo dute.

Ondoren, hirigintza-obretarako batzordekoak ariko dira: Jauregi-eremuko hitzarmena, Larraitz Bideko etxebizitzak, Kultur Etxea, arau berritatzailen aldaketak egiteko proposamena eta kontsultak egingo dituzte.

Asteartean 20:30ean, berriz, Festa Batzordearen informazioa

emango dute kultur batzordeak egindako bileran. Ondoren, udako udaleku irekiak eta euskal konpromisoa giza eskubideen aldeko gaiak landuko dituzte.

Gizarte ongizate eta ingurumena batzordea

Gizarte ongizate eta ingurumena batzordeak asteazkenean du hitzordua. Beti bezala, 20:30ean balioanitzeko gelan bilduko dira. Aralargune Gastronomi Elkartearen eskaera, jubilatuen ibilaldiak eta lokala, EVE-Amezketako Udala: eguzki plakak jartzeko aukera aztertuko dute, Tolosaldea Garzten elkartearen partaidetza, markesinen beharra aztertu eta herribideen erabilera eta egoerari buruz izandako kezak aztertuko dituzte.

Banakako I. Frontenis Txapelketako finala etzi izango da

Baliarrain » Frontenisean aritzea helburu nagusia duen txapelketako azken partidak bihar eta etzi jokatuko dituzte goizez.

ERREDAKZIOA

Bihar eta etzi Baliarraingo banakako frontenis txapelketako azken partidak jokatuko dituzte. Bihar, 08:00etan hasiko dira lehen jokalariek 18 tantotara jokatzeko, guztira 12 partida. Partidek 14:00ak arte iraungo dute.

Igande goizean, berriz (etzi), txapelketan jokatzeko diren azken bi partidak ikusteko aukera izango

da Baliarraingo frontoian: beraz, txapelduna eta txapeldunordeak erabakiko dira. Lehen partida 11:30ean hasiko da eta txapelduna erabakiko duena, aldez, 12:30ean.

Guztira 60 aritu dira

60 jokalariek aritu dira txapelketa honetan, arrakasta izan du beraz lehen aldez antolatuta duten txapelketa honetara.

Azken hiru asteburutan zehar izan dira jokalariek txapelketan parte hartzen, eta kanporatze sistemaren bitartez aritu dira. Bihar eta etzi, beraz, txapelketan jokalariek erakutsi duten maila ona mantenduz, final interesgarriak espero dituzte.



Buruntzuntzin txabolan egonaldia

AMEZKETA » Joan den asteburuan, Amezketako 11 eta 12 urte inguruko haurrek Buruntzuntzin txabolaria joateko aukera izan zuten, Buruntzuntzin txabolako elkartearen eskutik. Gau bat han pasa ondoren, Anastasio artzainarekin gazta nola egiten den ikusteko aukera izan zuten. Haien joan ziren guraso batzuk ere hura ikusteko parada izan zuten. HITZA



HITZAren harpidedun egiteko:

902-82 02 01

hitza@harpidetza.info

**egunean
20 zentimoren truke**

**egunkaria buzoian, zozketak eta deskontuak,
promozioetan abantailak,...**





Gezurra gezurraren gainean obraren une bat. HITZA

Antzezlanak asteburuan heldu zein haurrentzat

Villabona » Gaur, 'Gezurra gezurraren gainean' helduentzat, eta bihar, 'Zuk-zuk jaunaren alfabetoa' haurrentzat.

ERREDAKZIOA

Antzerkizaleek, heldu zein haurrek, aukera izango dute asteburuan Villabonan. Gaur, Orratz kultur elkarteak *Gezurra gezurraren gainean* antzezlan emango du, helduei zuzenduta, 20:00etan Guerea aretoan. Lekuberdinean, Irrintzi taldeak bihar *Zuk-zuk jaunaren alfabetoa* obra emango du, haurrei zuzenduta, 18:00etan. Kutzaren bitartez izango dira emanaldiak eta, beraz, sarrera doan izango da.

Dario Fo antzerkigile italiarraren bi antzezlanetan oinarrituta dago Orratzen lana. Foren lanen ia ezaugarri guztiak biltzen dituzte beren baitan. Kritika soziala edo hobeto esanda politikoa ez da hauetan nabarmen baina gainerako osagai guztiak irakasgai batean emango balira bezala ageri dira. Biak hala biak ironiaz, sarkasmoz eta egoera barregarritz zeharo zipriztinduriko antzezlanak dira.

Familia guztiarentzat

Bernardo Atxagaren *Zuk-Zuk jaunaren alfabeto berria* liburuan oinarritutako istorioa da Irrintzi taldeak antzeztzen duen obra. An-

Irrintzi taldearen *Zuk-zuk jaunaren alfabetoa* obraren kartela. HITZA

tzezlanean txotxongiloekin batera, hainbat objektu agertuko dira. Letrak dira protagonista Atxagaren ipuin edota asmakizunean. Izan ere, Zuk-Zuk jaunak alfabeto berria asmatu du. Alfabeto horretan letra bakoitzak nortasun propioa dauka, nahiz eta batzutan aldatze aldatu. A aparta eta alai, alua ere izan daiteke. B baketsua,

ostera, baldarra eta bekaizia izan daiteke. Edota Z zoragarriak batzuetan zomorroa eta zalantzar bete dirudi.

Oso testu interesgarria izanik, egituraren eta mezuaren aldetik, bide ematen du, Irrintzi taldeak egin dizkion ekarpenez, haur eta publiko familiarrentzat zinez egokia eta erakargarria izan dadin.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. merkea. Obra egin behar da. Interesatuek deitu: 657 23 00 11 edo 634 91 94 82.

Ⓜ **Inkesta.** Leitzarrek aztoratuta daude egunotan. Igan-dean, herriko bi pilotariak ariko dira buruz buruko finalean. HITZaren webgunean dagoen inkestaren arabera, %77ak Abel Barriolak irabaziko duela dio eta %23ak Oinatz Bengoetxeak. Sartu webgunean eta eman zure botoa eta iritzia bertan.

www.tolosaldekohitza.info



Ate irekien jardunaldi arrakastatsua

VILLABONA » Olaederra kiroldegian ate irekien jardunaldi arrakastatsua egin zuten pasa den igande. Haurrek batez ere igerilekuan jarritako puzgarrietan jolastu zuten. Helduei zuzendutako hainbat ekintzetan jende ugari parte hartu zuen. HITZA

Laburrak

Udako ikastaroetan izena emateko aukera

ALKIZA » 1992 eta 1996 urteen arten jaiotako haur eta gaztetxoentzat, Foru Aldundiak ondorengo kirol ikastaroak eskaintzen ditu udako: hipika, surf, body board, piraguismoa, aerobika, cycling, igeriketa, multiekintzak, tenisa, BTT, patinak eta pilota. Ekintza horiek Villabona, Donostia, Txarama, Aduna eta Zizurkilen izango dira. Izena emateko Aiztondoko bulegoetara deitu behar da (943 69 39 30) ekainaren 20a baino lehen.

Pentsiodunentzako eta jubilatuentzako bazkaria

ANOETA » Urtero bezala, Udalak herriko jubilatu eta pentsiodun guztiei bazkari bat eskainiko die Anoetako Herri Ikastolan hileren 24an, San Joan Egunean, 13:30ean. Bertara gonbidatuta daude baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak: Anoetan erroldaturik egotea, jubilatu edo pentsioduna izatea, 60 urte edo gehiago izatea. Bestalde, ezkonkideak joan daitezke eta aurretik aipatu baldintzak ez bete arren, lehen joaten zen norbait alargun gelditu bada eskaera onartuko zaio ere. Izen-ematea udallexean egin behar da, 09:00etatik 13:00etara. Hilaren 20a da azken eguna.

Euskal jaia antolatze bilerara deitu dute

ANOETA » Udaren ostean Euskal Jaia antolatu nahi dute Anoetan. Data zehazteko, eta prestakuntzein hasteko bilera batera deitu dute. Bilerak datorren astelehenean egingo dute, hileren 16an, 19:00etan, udallexean.

Uztailerako ikastaroetan izena emateko aukera

ANOETA » Kiroldegian uztailean egingo diren ikastaroetan izena emateko aukera zabalik dago hileren 25era arte. 16 urtetik gorakorentzat aerobik, yoga, cycling, pilates, hirugarren adineko gimnasia, dantza anitzak, multifitness eta defentsa pertsonala ikastaroak antolatu dira. 5 eta 8 urte bitartekorentzat, dantza modernoak, patinaia eta kirol hastapena.

EHNA tramitatzeko aukera bihar Kultur Etxean

TOLOSA » EHNA tramitatzeko aukera dago bihar Kultur Etxearen areto nagusian 10:30etik 13:30era. Errola zurtagarria, 2 argazki eta 15 euro eraman behar dira.

Junior mailan, saskibaloian jolasteko deialdia

VILLABONA » Datorren denboraldirako saskibaloiko mutilen taldea osatu nahi dute junior mailan, hau da, 1991 edo 1992 urteetan jaiotakoentzat. Kirola egin nahi izatea eta saskibaloian ilusioz aritzea da baldintza bakarra. Gazteagoek ere aukera izango dute. Udak Kirol bulegora joan edo 943 69 44 58 zenbakira deitu izena emateko.

PPk balio-urritasunentzat komisioa sortzea eskatu du

ZIZURKIL » Zizurkilgo PPK balio-urritasunen inguruan komisio bat sortzea eskatu du Udalean. «Balio-urritasun fisikoa duten pertsonak bizi diren lekuetan, Udalak finantziatuta igogailuak jar daitezkeen eskatzen dugun», dio Raul Vazquez zinegotziak.

Ingelesa
ikasi nahi al duzu?

Ikastaro trinkoak

Hasiberri eta aurreratuentzat
uztailean goizez

PAUSOKA akademia
Berazubi, **TOLOSA**
627 008 439 • 686 971 962

Jatorrizko irakaslearekin



Asteazkeneko euri jasak eta gero, Inguruarte erabat lokaztuta gelditu da eta pikaderoa, urak hartuta. NAIARA GARZIA

Zaldi Eguna bertan behera gelditu da oraingoz eta irailaren 6an ospatuko dute

Leitza » Kamiolarien grebak erabakia hartzeko orduan eragina izan duen arren, uholdeengatik hartu dute erabakia.

NAIARA GARZIA

Bihar ospatzekoa zen Zaldi Eguna bertan behera gelditu da. Erabakia asteazken iluntzean hartu zuten antolatzaileek eta atzo data berria jarri zuten: irailak 6, Talo Eguna-ren bezperan. Beraz, bihar ospatuko ez den arren, irailean egingen dute.

Jon Casares antolatzaileetako bat da eta erabakia zergatik hartu duten azaldu du. «Alde batetik grebaren kontua dago, gauza batzuk ekartzeko zailtasunak genituen kamiolarien greba dela eta, adibi-

dez behorak Tarazonatik ekarri behar zituzten. Gero zikiro jatearekin ere zalantzak zeuden, mahaia ekartzeko. Ez genuen argi ikusten bazkaria ere egin ahalko genuenik, greba dela eta. Orduan gauzak nahiko zintzilik genituen».

Hori gutxi balitz, herenegun egindako euri jasak erabaki hori hartzerantz bultzatu zituen. «Herenegun kriston euri zaparrada egin zuen eta erreka gure terrenoa baino altuago zegoen, ura azpitik ateratzen zen. Belarra moztea pentsatu genuen baina makina ere ezin zen sartu, dena lokatzez eta urez beteta baitzegoen. Argi eta garbi ikusi genuen bi egunetan ez zela lurra prest egonen, denbora gehiago beharko duela».

Gauzak horrela, momentuz bertan behera uzteko erabakia herenegun gauean hartu zuten.

«Pena bat da, gainera jendea oso prest zegoen, greba egon arren, batzuk guardiekin etorri behar zuten trenbidetik barrena, jendea ikaragarri ongi portatu da zentzu horretan, borondate handia jarri du, baina arratsaldeko gauzak ikustera joan eta lurra horrela egonda ezin genituzke kalitatezko erakustaldiak eskaini». Atzo, ordea, antolatzaileek beste data bat jartzea erabaki zuten eta irailaren 6an egingen dute.

Zaldi Eguneko bitxikeriak

Urtero bezala ekitaldi ugari antolatuak zituzten arren, aurtengo berezitasuna Hego-Ameriketako ro-deoa zen. «Rodeo antzeko zerbait egin behar genuen, *doma bruta* izenekoa. Bi behor basati jarri eta poste batean lotu, Nikaraguan bezala. Hori hemen ez da ikusi».

Herri afaria eta ongietorria ospatu egingen dira azkenean

Pilota » Herenegun bertan behera geldituko zirela erabaki zuten arren, atzo iluntzean irtenbide bat topatu zuten.

N. GARZIA

Herenegun iluntzean zabaldu zen berria herrian, igandean ez zela ez afaririk ez ongietorririk egingen, alegia, eta komunikabideak ere berri hori eman zuten atzo egun osoan zehar. Goizean hartutako erabakia hori izan zen arren, azkenean atzo arratsaldean Aurreran bilera egin zuten, irtenbideren bat topatzeko. Eta topatu zuten: festa egingen da, aurreikusita zegoen bezala, baita ongietorria ere.

Antolatzaileek azaldu dutenez, «aukeratu genuen catering enpresa-koak ez dira ausartzen etortzea». Honetaz gain, jende asko biltezekoa denez, aulkia eta mahaia ere kanpotik ekarri behar dituzte, eta kamioien grebak hori ere oztopatu du. Horiek izan ziren, beraz,

arrazoi nagusiak hasiera batean dena bertan behera uzteko erabakia hartzeko.

Atzo arratsaldean Aurreran bildu ziren, baita iluntzean ere eta azkenean, beste catering enpresa bat lortu dute eta finala merezi bezala ospatuko dute.

850 lagunentzako cateringa

Antolatzaileek 850 lagunentzako cateringa eskatu dute, baina 1000 lagun espero dituzte, norberak bere etxetik janaria eramateko txoko bat ere jartzeko asmoa baitute. Oraindik zehazteko dago non egingen duten, eguraldiaren arabera, plazan edo kiroldegian egingen baita afaria.

Igandea, festa eguna

Atzo festa egunerako ekitaldiak ordu askoz zintzilik egon ziren arren, azkenean ekitaldi guztiak egingen dituzte: goizean diana, meza, Incansables taldearekin potoea, eta partida eta gero ongietorria eta afaria. Ondoren, parranda izanen da herrian.



Erletakoek ere bi sari lortu dituzte

LEITZA » Joan den ostiralean Iruñeako Nafarroa Jauregian ospatutako sari banaketan Erleta eskolakoek ere bi sari jaso zituzten: deklamazio lehiaketako lehenengo saria eta bertso-paper lehiaketako lehenengoa. Deklamazio lehiaketa talde osoak egindako irakurketarekin irabazi zuten. Bertso-paper lehiaketa, berriz, Joanes Illarregik irabazi zuen. Talde bezala 600 euro jaso zituzten eta Senda Vivan izan ziren saria ospatzen. N. GARZIA

txokoa **h**

kontzerturako 5 sarrera pare zozketan

Arimaz Kamera Orkestra

Irungo Sokazko Orkestra Eskolak eskainia

Ostirala • ekainak 13 • 20:30ean
Tolosako Leidorren

irabazleak:

- Isabel Rekalde (Tolosa)
- Oihana Agirre (Tolosa)
- Iban Iaben (Villabona)
- Malentxo Arrospeide (Lizartza)
- Xabier Arraras (Leitza)





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alegia.** Odol-ematea sendagile etxean, 19:00etatik 21:00etara.
- **Ibarra.** Kirol Elkarteak batzar orokorra egingo du elkartearen lokalean 21:00etan.
- **Villabona.** Txosna Batzordeak Santio jaiari begira batzarra antolatu du 20:00etan udaletxeko baloianitzeko gelan.

Musika

- **Tolosa.** Arimaz Kamera Orkestra eta Irungo Soka Orkestraren emanaldia Leidorren 20:30ean.

Jaiak

- **Ibarra.** Gazte festak: 19:45ean txupinazoa, 20:00etan Mulanboren kalejira; 21:00etan barrikotea Gaztetxean; 22:00etan txosnen irekiera eta Hesian, Banda Batxoki eta Naizroxa taldeen kontzertuak plazan; tartean ekitaldia; ondoren Aritz sound system Gaztetxean.

Zinema

- **Zizurkil.** Tania Hermidaren *Que tan lejos* filma emango dute Atxulondo kultur etxean 19:30ean.
- **Tolosa.** *Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal*, Leidorren 22:30ean.

Antzerkia

- **Villabona.** Lezoko Orratx kultur elkartearen *Gezurra gezurraren gainetik* antzezlan eskainiko dute Gurea antzokian 20:00etan doan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz azuoa, 9. 943 675118.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Gitarrekin batera abestu ere egin zuten ikasleek. Jende asko hurbildu zen eskolako jolastokira, musika entzutera. N. URBIZU



Amezketako musika eskolako ikasleen saioa izan zen atzo, ikasturtea bukatu dela eta; gitarra, panderoa eta trikitixa piezak entzun ahal izan ziren ahotsarekin batera. Ondoren, merienda izan zuten eskolan.

Urteko lana ikusteko saioa

NEREA URBIZU

Amezketan urteroko egiten duten ekitaldia da: musika eskolako ikasleen emanaldia Zumadi eskolan. Bertan, urtean zehar ikasi duten hori erakustea da helburu nagusia, eta zergatik ez, entzuleen belarriari ahal den moduan goxatzea. Atzoko eguzki izpi bakanak aprobetxatu zituzten: arratsaldean giro bikaina zegoen kalean, eta eskolako jolaslekuan eskaini zuten emanaldia eta baita merienda ere.

Aurten ez da saxofoirik entzuteko aukerarik izan, iaz bezala: lehengo urtean ikasle batek jotzen zuen, baina jada ez du honekin jarraitzen. Gitarra, trikitixa eta panderoa izan dira aukeratuak. Pianoa ere badago, baina urte osoan zehar beste piano batean jotzen daude ohituta, eta aldatzen dutenean, ez

da erraza izaten jotzen ari denarentzat. «Ikasleentzako une txarra izaten da, eta ez da islatzen urtean zehar ikasten duten hori», musika eskolako arduradunek argitu bezala.

Trikitixa, gitarra eta panderoa entzun ziren, baina tresna hauek guztiak kantatzeko ere erabili zituzten. «Kurtsio hasieran Jone abeslariak gitarrako klaseak ematen zituen, baina beste lan bat atera zitzaion eta hemengoarekin ezin izan zuen jarraitu». Hala ere, gitarrako ikasleek elkartzen jarraitu zuten, eta bata eta bestearekin, abesten eta gitarra jotzen egitarau polit bat osatzen joan dira, atzo Zumadiko eskolako jolastokian erakutsi bezala. Trikitixa eta panderoa irakasten Irma Karrera aritzen da eta hauek ere egitarau oparoa eta alai prestatu zuten.

Ondoren merienda

Ordu musikatuaren ondoren, eta musika protagonista izan ondoren, meriendaren inguruan batu ziren bertaratu zirenguztiak: ez ziren gutxi izan. Musika eskolako elkarteak prestatu zuen merienda

ere, eta pankarta landua, berriz, guraso batzuek egin zuten.

Datorren urtean berriz ekingo diote ikasturte musikazale hauek, eta kantu berriak ere eskainiko dizkiete herritarrei, aurten bezala, gogoz eta ilusioz.



Panderoa eta trikitilariak trebetzen doaz urtetik urtera. N. URBIZU

TEMPHE
ILEBARRINDEGIA
Luzapena, 3. solairua Tolosa
Tel: 943 11 63 40

Zure irudi berria

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban Auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tfn: 943-850337 Fax: 943-652938
e-mail: tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Bipper Berria

PEUGEOT

Buruz buruko Txapela Leitzara

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza info



BENGOETXEA - BARRIOLA FINAL HANDIA ETZI

LEITZA Herriko bi semeei elkarrizketa egin dio HITZAK; lehengo astea batetik bestera ibili ondoren, aste honetan finalari begira jarri dira biak ere. Pilotariak ez ezik, herritarrak ere igandea noiz iritsiko zain, baina aste hauetaz gozatzen

Elkarrizketa

OINATZ BENGOTXEA ETA ABEL BARRIOLA Buruz buruko Txapelketaren finalistak



A. OGINA

«Dominatzera iristen den pilotariak partidaren zati bat irabazia du»

Pilota Leitzako herriak opari ikaragarria jaso du, bertako bi semeek Buruz buruko Txapelketako finala jokatuko baitute datorren igandean.

Aurkariaren izenak ezagutu ondoren, zer pentsatu zenuen?
Oinatzen Bengotxea: Ez zegoen asan, aurrean ilusio handia nuen txapelketarekin, baina oso zaila ikusten nuen aurrera egiten. Lehengo partida Leitzan arkitu baino ere, eta Leitzan bera ere oso pilotari gogorra da. Gainera, nahiko garbi jantzen nuen partidaren horri, behar izaten iruditu zaiten. Ez zuten, ordea, ametetan hasi nahitasmonez, egia hitartu, eta Leitzan arkitu zuten diru, baino arkitu zuten.

Abela Barriola: Nire kasuan, txapelketa hasi zenean, ez nuen ez finalera, eta finalerdietara begira. Iliutasunarekin, nirekin zuzen-nabari, eta badakit aurkari oso gogorra dela. Beste taldeak ere, Gonzalez edo Mujika zuten, eta nirekin gaitza ez zela erraza izango, eta ez nuen partidaren zati bat irabazteko begira. Kontu horiek denek kontutan hartzen badituzu, ito egiten dugu.

Nola ikusten duzue lagun txapelketa?
Oinatzen Bengotxea: Oinatzek ditanto bakarera ere burkatuko. **Nondik helduko duzue aurkaria?**
A.B.: Buruz buruko txapelketak jokatzean, beharrezko teoria oso erraza izaten da, gero teoria praktikan jarriko den bezalakoak dira kontuak. Baina sarraskia naiz, aski aprobetxatzen eta pelotean dominatzen; eta aukera dudanean, tantos bukatzen. Garrantzizkoa da pelotean dominatzea. Dominatzen duen pilotarik partidaren zati bat irabazia du.

ez zen korapilo bat zuten denek ere. Leitzan, Barriolak zer egingo ote zuen, zain zen. Oso ozeki esaten baitzen, Leitzako pilotarien zaien herriko berri orna: Buruz buruko Txapelketan, finalerako sailkatu zen. Herrikoek poza handia jaso baitzuten ere, askatzen

Abela Barriola: Nire kasuan, txapelketa hasi zenean, ez nuen ez finalera, eta finalerdietara begira. Iliutasunarekin, nirekin zuzen-nabari, eta badakit aurkari oso gogorra dela. Beste taldeak ere, Gonzalez edo Mujika zuten, eta nirekin gaitza ez zela erraza izango, eta ez nuen partidaren zati bat irabazteko begira. Kontu horiek denek kontutan hartzen badituzu, ito egiten dugu.

Abela Barriola: Nire kasuan, txapelketa hasi zenean, ez nuen ez finalera, eta finalerdietara begira. Iliutasunarekin, nirekin zuzen-nabari, eta badakit aurkari oso gogorra dela. Beste taldeak ere, Gonzalez edo Mujika zuten, eta nirekin gaitza ez zela erraza izango, eta ez nuen partidaren zati bat irabazteko begira. Kontu horiek denek kontutan hartzen badituzu, ito egiten dugu.

Aliprox

Elbarren, 71 • Tel.: 948 51 00 07
Elbarren, 20 • Tel.: 948 61 06 57

FISIOTERAPIA
ANIZ EGITUTZA LANTZA

FISIOTERAPEUTA

- Min artikulatuari eta miofazialari zuzenduriko akupuntura
- Erretziotografia
- Osteopatia

- Kirol eta zirkulazio masajea
- Erdize aumko / ondorengo tratamendua
- Erreze erreto laguntza
- Mikioak • Aspiroirak
- Parturabarrak

Huarte Gotezain 8, 3C • LEITZA • 948 510 730

Abela Barriola: Nire kasuan, txapelketa hasi zenean, ez nuen ez finalera, eta finalerdietara begira. Iliutasunarekin, nirekin zuzen-nabari, eta badakit aurkari oso gogorra dela. Beste taldeak ere, Gonzalez edo Mujika zuten, eta nirekin gaitza ez zela erraza izango, eta ez nuen partidaren zati bat irabazteko begira. Kontu horiek denek kontutan hartzen badituzu, ito egiten dugu.



II. OGINA

Nola ikusten duzue etziko partidak?
O.B.: Partida gogorra izango da. Bi hobereak iristen dira finalera, eta finalerdiak ez da izango. Partida gogorra izango dut irabazteko. Abela Barriolak ez du irabazteko garaia. Baina irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da.

Irabazten duenak irabazi eta lotzen den emaitza lortuta, ospatzeko arazoak ditugu
Gure amak lasai daude, partidaren eguain kiroko dantzan izango dituzte baina
Inguruko gutziak eskerrak eman beharrem gara, haien omak gutziak iritsi zaizkigu eta

A.B.: Bitarik izan dut zikloaren. Eskuko minarekin hasi eta azkenean eskuek min horiek ezagotzen saiatzen du. Lesioekin asko saiatzen da, eta hori izango da. Gainera, kirolari bati tokatu ahal zaiton gauzak txarrena. Denboraldi oso txarra pasatu nuen, oso gogorra izan zaiten. Aurrerago da. Aurrerago da. Aurrerago da. Aurrerago da. Aurrerago da. Aurrerago da.

gorra jokatu beharko du. Oinatzek ditanto bakarera ere burkatuko. **Nondik helduko duzue aurkaria?**
A.B.: Buruz buruko txapelketak jokatzean, beharrezko teoria oso erraza izaten da, gero teoria praktikan jarriko den bezalakoak dira kontuak. Baina sarraskia naiz, aski aprobetxatzen eta pelotean dominatzen; eta aukera dudanean, tantos bukatzen. Garrantzizkoa da pelotean dominatzea. Dominatzen duen pilotarik partidaren zati bat irabazia du.

Herriak zuzen ikusten duzue?
O.B.: Denetarik izango da, batzuk nire ulke egingo dute partidaren zati bat irabazteko. Baina irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da.

Abela Barriola: Nire kasuan, txapelketa hasi zenean, ez nuen ez finalera, eta finalerdietara begira. Iliutasunarekin, nirekin zuzen-nabari, eta badakit aurkari oso gogorra dela. Beste taldeak ere, Gonzalez edo Mujika zuten, eta nirekin gaitza ez zela erraza izango, eta ez nuen partidaren zati bat irabazteko begira. Kontu horiek denek kontutan hartzen badituzu, ito egiten dugu.

loekin ongi moldatzen naiz, eta ikaragarri jostoen dugi haien gainetik, eskerrak. **Herria zuzen ikusten duzue?**
O.B.: Denetarik izango da, batzuk nire ulke egingo dute partidaren zati bat irabazteko. Baina irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da.

A.B.: Abela Barriola irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da. Baina irabazteko garaia da.

HARRITECIA-URDUTECIA

J.A. URKIOLA

Leitzako kirolarekin bat!

Elbarren, 94 - 1.
Tel.: 948 51 04 67

LEITZA

PERITZA

TABERNA

• Pintxoak • Bokatak
• Plater konbinatuak

Tel.: 948 61 08 48 • LEITZA

- EKABAZIOAK
- URBANIZAZIOAK
- MENDI ETA HERRI BIDEAK
- PABLLIEN EGURKUNTZA
- ETXEBIZITAK
- ETXEBIZITZEN
- ZAHAR-BERRITZE LANAK

GORRITZ

EXCABACIONES Y CONSTRUCCIONES GORRITZ S.L.
INDURRIETA INDUSTRIAGUENA P-21 LEITZA 31880
TEL.: 948 510 140 • FAX: 948 510 260

I Inkesta

1. Nola jaso duzu bi leitzar finalean izango direneko berria? 2. Zergatik merezi du Abelek txapela? 3. Zergatik merezi du Oinatzek txapela?




«Emaitza da gutxienekoa, goza dezatela finalarekin»

Miguel Mari Aldaia
JUBILATUA

1. Albiste oso polita izan da. Herriko bi pilotari izatea oso zaila da, eta biak finalera iristea, zailagoa. Inoren alde egin gabe, momentu hau gozatu egin behar da. Pilota partida etxean lasai ikusiko dut; partiduarekin gozatea espero dut.

2. Finaleran ez du zortirik izan, lan asko egin du, ordea, eta merezi du.

3. Lan asko egin du Oinatzek ere, eta finalera goza dezaten opa ditut.



«Egun polita igarotzeko aukera dugu leitzarrok»

Joxe Ramon Intsausti
LIBURU DENDARIA

1. Poza handiarekin. Igandeetan ere, egunkaria nahi izaten dute herrikoek, eta lan egitea tokatzen zait. Bazkaldu ondoren partida ikusiko dut telebistan.

2. Abel kirolari bezala oso konplettoa da, eta gainera jatorra. Goian zegoenean lesioak izan eta behera jaitsi zen. Orain du aukera.

3. Ez genuen inork Oinatz finalean espero, eta kirolari bortitza da.



«Abelek beste aukera bat du txapela eskuratzeko»

Garbiñe Ernardorena
BURDINDENAKO LANGILEA

1. Herriko pilotari bat finalera iritsita poza hartzen da, imajina bi iritsita. Frontoian izango naiz igandean, eta jai izanez gero parranda.

2. Abel final askotara iritsi da, eta ez dakit zergatik, baina final asko galdu ditu, eta oraingoa beste aukera bat du.

3. Gaztea da, eta ez genuen espero finalean izango zenik, eta horrek zerbait esan nahi du.



«Gaezan, bien omenez parranda egingo dugu»

Peio Lizartza
PAPERGINTZAKO LANGILEA

1. Maila horretan bi pilotari izatea handia da, eta biak finalera iristea, ikaragarria. Igandean lana egin behar dut, baina ea partida ikusteko aukera dudana. Ilusio handia dut.

2. Urte askoan meritu asko egin du baina finaleran ez du zortirik izan.

3. Bere urtea izan da. Denok ere ezusteko galata hartu dugu Oinatz partidekin, eta akaso, finalean ere, beste ezustekoa izango da.



«Egun konplettoa antolatua dut iganderako»

Joxe Mari Etxeberría
ILE MOZTAILAIA

1. Oso pozik; bi leitzar finalean izanda, egun konplettoa pasako dugu igandean. Eguerdian Donostian bazkalduko dut, eta gero partida ikustera joango naiz frontoira. Nik antolatua dut igandea.

2. Finalera ailegatu delako; eta urte asko daramatzalako horretan.

3. Oinatzek ere merezi du, zergatik ez? Lan asko egin du berak ere, eta gogor lan eginda, finalean da.



«Momentu historikoa da, eta ongi ospatu behar da»

Jon Arangoa
MEKANIKARIA

1. Bi leitzar finalean izatea historikoa da. Iganderako eguna antolatzeko lan talde bat sortu zen, pilotariei protagonismoa kendu gabe, egun osorako ekintzak antolatzeko asmoarekin.

2. Langile peto-pettoa da, eta horrenbeste sufritu eta gero, bat ez, dozena erdi bat txapel merezi ditu.

3. Lana besterik ez du egin, eta merezia du txapela etxeratzea.



«Irabazten duenak irabazi, sari bikaina dute biek ere»

Gloria Zabaleta
OSTATUKO LANGILEA

1. Oso pozik eta gustura hartu dugu denok ere. Finalaren egunean, jende asko ibiliko da herrian, eta aurrean lan egingo dut. Arratsaldean, telebistan, partida ikusi.

2. Pilotari ona da. Askok sufritu du, eta berarekin, ondokoek ere. Sari bikaina izango litzateke Abelen tzat eta ingurukoentzat.

3. Oinatzek ere lan asko egin du, eta merezi du txapela.



Lesioak gainditzea ez da erraza, Abelek lortu du»

Josu Aierdi
MANTENTZE LANETAN

1. Oinatzek finelera sartzeko partida irabazita, finalean Abel ikusteko ilusioa piztu zitzaidan, eta hala izan da. Gutxitan gertatzen den kontua da, eta oso gustura nago.

2. Lesioetatik ateratzea ez da erraza izaten kirolariarentzat, eta tranzte horretatik oso ongi aterako merezi du txapela ateratzea.

3. Goi mailako pilotariei irabazi, eta txapelketako errebelazioa izan da.



«Igandean asko animatuko ditut bi pilotariak»

Mañel Woschvill
IKASLEA

1. Oso pozik geratu naiz. Igandean telebista aurrean jarriko naiz, ea nork irabazten duen, asko animatuko ditut. Pilotari handiak atzean utzita iritsi dira finalera,

2. Oso ona da eta merezi du. Oso ongi jokatzeko pilotan, eta niri asko gustatzen zait Abel.

3. Oinatzek ere merezi du partida irabaztea, asko poztuko litzateke, finalerara gutxitan iristen baita.



«Ezin biek txapela atera, hori litzateke politena»

Julia Villabona
JUBILATUA

1. Urrutikoak badira ere, biak ere senitartekoak ditut, eta poz ikaragarria hartu nuen. Etxean ikusiko dut partida. Egia esan, biak maite ditut, eta hoberenak edota suerte hobea duenak irabaz dezala.

2. Behin atera zuen, eta geroztik, beti azkeneraino iristen da eta ez du bukatzen.

3. Oinatzek lehenbizikoa du, poz handia berak irabaziko balu ere.



«Abelek ez du etsi, lanean jarraitu du buru-belarri»

Juakina Zabaleta
BASERRITARRA

1. Oso pozik. Ez genuen espero, eta horrelako berriak oso pozgarriak dira. Aurkaria leitzarra badu ere Abelen alde egingo dut finalean, ilusio handia dut iganderako.

2. Lan asko egin du urte hauetan guztietan, eta azken finaleran txapela etxeratu ez badu ere, lanean jarraitu du etsi gabe.

3. Txapela merezi badu ere, oraindik urte asko ditu aurretik.



«Ez nuen pentsatu Oinatz finalean izango zenik»

Patxi Irueta
ZERRATEGIKO LANGILEA

1. Oso pozik. Abel finalera iritsiko zela espero nuen, baina ez nuen pentsatu ere egingo Oinatzek egin duen txapelketa egingo zuenik. Igandean frontoian izango naiz.

2. Final gehiagotan egon da, eta, pixka bat falta izan zaio. Abelen pantidetan izan naiz, eta oso ongi dago, ea oraingoa...

3. Merito propioa izan da pilotari handiak atzean utzi eta iristea.



«Abel eta Gonzalezen partidari gozatu nuen»

Mikel Sagastibeltza
IKASLEA

1. Oso pozik, Abel eta Gonzalezen arteko partidua ikustera joan nintzen, eta oso gustura atera nintzen. Bi leitzar finalean ziren, ezin nuen sinetsi ere egin, ametsa da.

2. Ikaragarri jatorra da, eta horrenbeste finalerara iritsi ondoren, txapela ateratzea merezi du.

3. Horren gazte finalera iristea badu meritu, eta merezi du finala irabazi, eta txapela beretzat izatea.



«Lan asko egiten dute bi pilotariak ere frontoian»

Periko Razquin
JUBILATUA

1. Oso ongi, eta gustura. Igandean partidua ikusiko dut tabernaren batean, lagun artean. Egun polita izango da, eta asko gozatuko dut.

2. Pilotari konplettoa da. Abelek asko zaintzen du partidua, eta lan asko egiten du frontoian.

3. Oinatz ere pilotari oso ona da. Askok erakutsi du txapelketa hontan. Ez du tanto bakar bat ere galduzkat ematen, gogor saiatuko da.



«Oinatzek aldekoa naiz itsu-itsuan»

Peio Fernandez 'Gadafi'
KAMIOLARIA

1. Leitzar guztiak bezala oso pozik. Oso kirolariak izan gara beti leitzar, eta horrelako notiziak oso gustura hartzen dira. Igandean ongi pasa eta ahal dudana guztian disfrutatu egingo dut.

2. Urte asko daramatza lanean, eta sufritzea tokatu zaio gainera.

3. Den bezalako izanda, pilotari bikaina dela erakutsi du Oinatzek, eta sasoi batean dago oraintxe.